# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia | Iruña, 2009ko maiatzaren 21a | 48. ZK.

**A U R K I B I D E A**

F SAILA:

**Galderak:**

—Galdera, debekua betetzeari eta ibaietako ekosistemari kalte egin ahal izan dioten gorabeherei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
—Galdera, Amuarrainaren Lantalde Teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
—Galdera, Nafarroako zenbait ibaitan arrantzatzeko debekuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
—Galdera, Natura 2000 Sareak ukitutako herriguneetan araztegi berriak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
—Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
—Galdera, lupus gaixotasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Galdera, "Laguntzak abeltzaintzako azpiegiturei. PDR. FEADER." izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
—Galdera, 2006, 2007 eta 2008ko laguntza jarraituaren kostuari eta 2009rako aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, asegururik gabe ibiltzen diren ibilgailuek eragindako istripuei eta Foruzaingoak horiek kontrolatzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
—Galdera, Erronkariko ur-amilei buruzko proiektuaren ingurumen eraginaren adierazpena egin ez izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
—Galdera, Reyno Gourmet publizitate kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
—Galdera, A-15 autobiaren 128. eta 128,5. kilometro-puntuetan izandako istripuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
—Galdera, irakasleen plantillek Nafarroako ikastetxe guztietan duten egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
—Galdera, eskola garraioaren zerbitzua ematen duten ikastetxe pribatu itunduei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).

—Galdera, oinarrizko irakaskuntzarako testu liburua finantzatzearen gaineko Foru Legeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
—Galdera, Hezkuntza Departamentuak *Mentaliza zaitez* kanpaina ikastetxeetan zabaltzeko baimenik ez emateko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
—Galdera, zeru zabaleko meategi abandonatuei eta horiek leheneratzeko balizko neurri edo planei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
—Galdera, Osasun Departamentuak *Mentaliza zaitez* kanpaina abian jartzeko baimenik ez emateko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
—Galdera, Aurizko liburutegi publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
—Galdera, arkitekturako, ondare higigarriko, arkeologia-ondareko eta etnografia-funtsetako inbentarioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (30. or.).

**F saila:**
**GALDERAK**

# Galdera, debekua betetzeari eta ibaietako ekosistemari kalte egin ahal izan dioten gorabeherei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du debekua betetzeari eta ibaietako ekosistemari kalte egin ahal izan dioten gorabeherei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du debekaldia betetzeari eta ibai-ekosisteman eragin kaltegarria izan ahal izan duten gorabeherei buruz (PES332). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Izokinen Goi Eskualdean amuarraina arrantzatzeko 2008an ezarritako debekaldiaren batera, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zenbait neurri hartu zituen, arrain-populazioak babestu eta hobetzeko. Haietako bat zen ibai-esparruan zaintza areagotzea; besteak beste, gerta zitezkeen ezkutuko arrantzari, isurpenei eta abarri aurre egin nahi zitzaion. Horretarako, lanbatzorde espezifiko bat sortu zen (ibaien Zaintza Batzordea), lanak koordinatzeko, eta zaintze-lan eraginkorra bermatzeko; batzordea hauek osatzen zuten: Ingurumen eta Ur Zuzendaritza Nagusiak, bere mendeko teknikariekin eta basozainekin; Foruzaingoak; SEPRONAk; eta Nafarroako Larrialdietarako Agentziak.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren basozaintza. Balantzea oso ona izan da, ibaietan normaltasuna erabatekoa izan da, eta ez da gertatu azpimarratzeko moduko ezkutuko arrantzarik, edo ezer salagarririk. Isurpenei dagokienez, 22 jarduketa egin dira.

Foruzaingoa –Ingurumenaren Babes Dibisioa Guztira 32 salaketa egin dira arrantza-arautegia urratzeagatik; horietatik hamar debekatuta zeuden ibaien arroetan gertatutako arau-hausteei dagozkie. Isurpenei dagokienez, 432 jarduketa egin dira, eta horien ondorioz 19 salaketa. Ezkutuko arrantzari dagokionez, ez da izan inolako ekintza salagarriren berri.

Naturaren Babeserako Guardia Zibilaren Zerbitzua (SEPRONA). 294 arau-hauste jaso dira: 119, arrantza-kontuengatik; 113, isurtzeagatik edo erauzteagatik; eta 62, beste zenbait arrazoirengatik.

Arrantzale-elkarteei esker, guztira bederatzi pertsona aritu dira zaintza-lanetan. Haiek azaldu dutenez, normaltasuna ohikoa izan da. Azpimarra daiteke arau-hausteren bat gertatu dela karramarro seinaledunaren legez kanpoko arrantzagatik.

Nafarroako Larrialdietarako Agentzia (SOS Nafarroa) Arrantzari lotutako gorabeheren laburpen gisa, SOS Nafarroan dei hauek erregistratu dira: 4 salaketa, 4 kontsulta eta 111 arazo isurpenengatik.

Gaur egun, 27 zigor-espediente izapidetzen ari dira, Nafarroan aurtengo ekitaldian arrantza-arautegia hausteagatik. Espedienteen oinarrian dauden salaketetako batean ere ez da jaso hil diren edo atzera uretara bota diren aleak harrapatu direnik.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

# Galdera, Amuarrainaren Lantalde Teknikoari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Amuarrainaren Lantalde Teknikoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Amuarrainaren Lantalde Teknikoari buruz (PES-334). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1 - Autonomia-erkidego bakoitzean eskura dagoen informazioaren bilketa hasteko, lan-fitxa bat egitea erabakitzen da, eta autonomia-erkidego bakoitzak dauzkan datuak jaso ditzake hartan, bai eta bere egungo egoeraz daukan ikuspuntua ere. Gainera, gutxienez hemendik aurrera eskura egon beharko luketela pentsatzen den datuen matrize bat egiten hastea erabakitzen da, faktore anitzeko azterketa egin ahal izateko, eta, horren ondorioz, amuarrainaren populazio-dinamikari eragiten dioten aldagaiak zein diren erabakitzeko. Era berean, bilera horretan beste bilera batera deitzea erabaki zen; Madrilgo Komunitateak hartu zuen dei hori egiteko konpromisoa. Bilera abenduan egitea espero da.

2.- Oraindik ez dago informazio nahikorik erabakitzeko beharrezkoa ote den Departamentuaren lan-prozedurak berrikustea.

3.- Oraindik ez dago argudiorik lantaldeen ebaluazioa oinarritzeko. Nolanahi ere, Departamentuak oraindik ere konfiantza dauka lantaldeak erdiko epean lor ditzakeen emaitzetan.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

---

# Galdera, Nafarroako zenbait ibaitan arrantzatzeko debekuari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Nafarroako zenbait ibaitan arrantzatzeko debekuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Gracia Iribarren Ribas andreak galdera egin du Nafarroako ibai askotan ezarritako arrantza-debekualdiari buruz (PES 338/08). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Aurreko urteetan bezala, Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak Nafarroako ibaietan dauden amuarrain-populazioen jarraipen- eta kontrol-lanak egin ditu 2008ko udan, zer egoeratan dauden, denboran zehar zer bilakaera izan duten eta zenbateko iraunkortasun-maila duten jakiteko.

Ugalketa aldiko erruteen garapenaz eta udaberrian populazioetan sartzen diren arrainkumeen jaiotzaz eta agerpenaz egiten diren kontrolez gain, udako populazio-inbentarioak dira espeziearen egoerari buruzko informazio-iturri nagusia.

Ikerketaren arabera, izokin-arroko ibaietako amuarrain arrunten batez besteko populazioa hektareako 1.869 amuarrainekoa da. Horrek esan nahi du kopurua 2007koa baino % 14 handiagoa dela, baina oraindik izan nahi den mailaren azpitik dago (2.000-4.000 amuarrain hektareako). Hortaz, populazio-dentsitatea ahula da, eta, gainera, aldatu egiten da arro batzuetatik beste batzuetara.

Amuarrain-populazioa handitu egin da adintarte guztietan. Zehazki, amuarrainetan % 22 gehiago detektatu dira (0,0919 metro koadroko), eta gazteetan % 4 gehiago (727 ale hektarea bakoitzeko). Amuarrain helduen populazioa (223 ale hektareako) aurreko urtekoa baino % 23 handiagoa da; hortaz, maila normaletan dago, eta hori datu esperantzagarrienetako bat da, eragin zuzena izan beharko lukeelako populazioa ugaltzeko ahalmena handitzean. 2009an ugaltze-ahalmen hori 2008an baino % 29 handiagoa izanen dela pentsatzen da, ale helduak izanen baitira, eta horiek, egoera normalean, desagertuta egonen ziren arrantzaren ondorioz.

Nolanahi ere, suspertze hori ez da neurri berekoa izan arro guztietan, dentsitatea oraindik ere oso ahula delako Pirinioetako ibaietan, baina gainerako arroetan egoera nabarmen hobetu dela ikusten da.

Amuarrain arrunten populazioan aurten gertatutako hobekuntzak bultzada handia ematen dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, ibaietako ingurumen-kalitatea hobetzeko Jarduera Planarekin jarraitzeko; plan hori aurtengo urtarrilean abiarazi da, ibaietan amuarrainen populazioa berreskuratzeko. Planak hainbat neurri jasotzen ditu; besteak beste: ibaiak gehiago zaintzea; habitata hobetzea; ubarroien populazioa kontrolatzea; Izokinen Goi Eskualdean amuarrainaren arrantza debekatzea; ibaiak Bidasoakoen erako amuarrainekin birpopulatzea; arrantza daitezkeen espezieen kopurua handitzea (amuarrain triploidea eta aingira); eta izokina arrantzatzeko aldia eta kupoa handitzea. Laster erabakiko da indarrean jarraituko duen amuarrain arrunta Izokinen Goi Eskualdean arrantzatzeko debekualdiak.

Kontseilari gisa, Arrantzaren Aholkularitza Batzordearen bilerako buru izan nintzen 2008ko azaroaren 5ean; batzorde horretan zenbait arrantzale-elkarte eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko zenbait kide daude, eta egindako bilera hartan Nafarroako amuarrain arrunten populazioari buruzko datuak jakinarazi zituzten.

Era berean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak gure ibaietan amuarrainen populazioa lehengoratzeko abiarazitako Jarduera Planeko neurrien balantzea egin zen Arrantzaren Aholkularitza Batzordean. Planak hainbat neurri jasotzen ditu; besteak beste: ibaiak gehiago zaintzea; habitata hobetzea; ubarroien populazioa kontrolatzea; Izokinen Goi Eskualdean amuarrainaren arrantza debekatzea; ibaiak Bidasoakoen erako amuarrainekin birpopulatzea; arrantza daitezkeen espezieen kopurua handitzea (amuarrain triploidea eta aingira); eta izokina arrantzatzeko aldia eta kupoa handitzea.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

# Galdera, Natura 2000 Sareak ukitutako herriguneetan araztegi berriak egiteari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Natura 2000 Sareak ukitutako herriguneetan araztegi berriak egiteari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari José Ángel Agirrebengoa Imaz jaunak galdera egin du Red Natura 2000k ukitutako hiriguneetan beste araztegi batzuk eraikitzeari buruz (PES-335). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Araztegi berriak hauek dira:

– Abartzuza-Azkona-Aritzalako hondakin-uren araztegia

– Ezkarozeko hondakin-uren araztegia

– Figarolgo hondakin-uren araztegia

– Labaiengo hondakin-uren araztegia

– Ledeako hondakin-uren araztegia

– Puiuko hondakin-uren araztegia

– Arradako hondakin-uren araztegia

– Bidasoa ibaiaren bidearen erdialdeko hondakin-uren araztegi

– Urdazubi-Dantxarineko hondakin-uren araztegia

– Ziordiko hondakin-uren araztegia

NILSA sozietate publikoarena da haiek egiteko ardura, eta haren planifikazioan jasotakoaren arabera, lanak 2007tik 2015era arteko aldian sustatu eta gauzatuko dira. Une honetan, multzoko jarduketa garrantzitsuenak –"Bidasoa ibaiaren bidearen erdialdeko hondakin-uren araztegia"–, bere baitan hartzen baitu Baztan ibarreko zenbait herritako (Arraioz eta Oronoz/Mugairiko), Bertizaranako, Legasako eta Sunbillako isurien arazketa, dagoeneko badauka promozio- eta lizentzia-fasean dagoen proiektu idatzi bat; "Ezkarozeko hondakin-uren araztegia" eta "Urdazubi-Dantxarineako hondakin-uren araztegia" proiektuek aurreproiektuak dauzkate eta, beraz, zehaztutako irtenbide teknikoa. 2010ean, "Abartzuza-Azkona-Aritzalako hondakin-uren araztegia", "Arradako hondakin-uren araztegia" eta Figarolgo hondakin-uren araztegia" eginak izanen dira, eta 2011rako "Ledeako hondakin-uren araztegia", "Ziordiko hondakin-uren araztegia" eta "Labaiengo hondakin-uren araztegia" daude aurreikusita. 2012an, bestalde, "Puiuko hondakin-uren araztegia" idatziko da.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

# Galdera, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko zenbait kontusailen betetze-mailari, amaierako betetze-aurreikuspenari eta horiei egotzitako kontzeptuen xehakapenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak informazioa eskatu du 2008ko Aurrekontuetako kontusailen betetze-egoera eta -aurreikuspenari buruz (PES-00326). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Lehenengo puntuari dagokionez, kontusailen betetze-egoera, urriaren 22an, gehitzen den informazio-taulan dago jasota. Esan behar da zerga-gastuak Ekonomia eta Ogasun Departamentuak kudeatzen dituela, eta departamentu horrek kontabilitate-idazpen bakarra egiten duela ekitaldiaren amaieran. Horregatik, kontabilitate-sisteman, une horretara arte, hutsekoa da kontusail horien betetze-maila.

Bigarren eta hirugarren puntuei dagokienez, Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak informazio hau eman dezake, aipatu kontusailen arabera zehaztuta:

• 810001 81130 7609 458100 “Jarduera ekonomikoetarako udal eremuentzako laguntzak”:

Azken bi urteetan hartutako konpromisoetatik, 2008. urtean 432.999 euroren laguntzak ordainduko dira.

2008ko deialditik, 1,3 milioi euroren laguntzak emanen dira.

• 810002 81140 7609 425200 (**) “Toki entitateek inbertsioak egiteko dirulaguntzak”.

Onartutako eskaeren kopurua: 23.

2008an ordainduak: 14.Konprometitutakoaren arabera, 516.186,59 eurokoa da ordaindu beharreko kopurua.

2009an ordaintzekoa. Eskaera horietarako 2009ko aurrekontuaren kontura ordaindu beharreko kopurua 270.091,50 eurokoa da.

• 810002 81140 7800 425200 “Energia berriztagarrietan inbertsioak egiteko dirulaguntzak” 527.765 euro

2007an onartu eta 2008an ordaindutako eskaeren kopurua: 122 eskaera eta, horiei lotuta, 104.007,03 euroko kopurua.

2008an onartutako eskaeren kopurua: 208

2008an ordaindutakoa: 7 eskaera eta, horiei lotuta, 122.352 euro.

2009an ordaintzekoa: 201 eta, horiei lotuta, 1.808.000 euro.

• 810003 81140 2276 425200 Aurrezteko eta eraginkortasuna handitzeko neurriek eginarazitako gastuak

2008ko ekitaldian konprometitutako kopurua 194.327 eurokoa da.

• 810003-81140-4701-425200 Auditoriak, diagnosiak eta ikastaroak.

2008ko ekitaldian konprometitutako kopurua 12.937 eurokoa da.

• 820002-81300-6031-467900. Zerbitzu mugikorretarako eta LTDrako azpiegiturak.

2008ko ekitaldian konprometitutako kopurua 1,8 milioi eurokoa da.

• 820002-81300-6059-467900. Telekomunikazioetako azpiegituren plana. Feder.

2008ko ekitaldian konprometitutako kopurua 820.061 eurokoa da.

• 850001-81400-4709-431300 Kanpoko sustapenerako ekintzak.

1) 2008-2011 aldian enpresak kanpoan sustatzeko ekintzetarako dirulaguntzei erantzuteko, 2008ko aurrekontuko gastu-baimena, 192/2008 Foru Aginduak onartua (2008/06/27ko NAO).

2008ko aurrekontuaren kontura, 1.100.000 euroko gastua baimendu da.

2) 2008-2011 aldian nazioartekotzea babesteko zerbitzuetarako dirulaguntzei erantzuteko, 2008ko Aurrekontuko gastu-baimena, 224/2008 Foru Aginduak onartua (2008/07/28ko NAO).

2008ko aurrekontuaren kontura, 750.000 euroko gastua baimendu da.

• 81210-840001-7709-467303 I+G+b proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun-azterlanetarako dirulaguntzak enpresentzat. Feder

Hasierakoa: 16.225.000 euro

Bateratua: 12.889.581,83 euro

Baimendua 2008ko urrian: 12.027.930,21 euro (% 93,32)

Aurreikuspena 2008ko abenduan: % 100

Gaiak eta kontzeptuak: lerroaren izenak adierazten dituenak.

• 81210-840001-7709-467307 I+G+b proiektuetan eginiko inbertsioaren gastu fiskalak

Kontusail hau ez du kudeatzen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak; horretarako eskumenak Ekonomia eta Ogasun Departamentuarenak dira.

• 81210-840001-7819-467305 Zentro teknologikoak finkatzeko dirulaguntzak. ICTak

Hasierakoa: 5.000.000 euro

Bateratua: 5.000.000 euro

Baimendua 2008ko urrian: 500.000 euro (% 10,00)

Aurreikuspena abenduan: 3.800.000 euro (% 76)

Gaiak eta kontzeptuak: kontusail hau Agoitzen kokatuko den bigarren belaunaldiko bioerregaien zentroa eraikitzeko da.

• 81220-840002-4809-467902 Izena: Internet banda zabalekoa sustatzeko laguntzak

Hasierakoa: 600.000 euro.

Bateratua: 600.000 euro

Baimendua 2008ko urrian: 600.000 euro (% 100,00)

Aurreikuspena 2008ko abenduan: % 100

Gaiak eta kontzeptuak: Laguntzak partikularrentzat, Internet banda zabalekora konektatzeko, sare finko, mugikor edo satelite bidez.

• 84100-881001-4609-241100 Gizarte-intereseko obrak kontratatzeko dirulaguntzak

Amaierako betetze-aurreikuspena: 3.628.524,86 euro.

Kontusail honi egotzitako kontzeptuak: soldata-kostu guztien % 80, toki korporazioek kontratatutako langileen gizarte-segurantzagatik ugazabek ordaindu beharreko kuota barne, aplikagarria den hitzarmen kolektiboaren gehieneko muga gainditu gabe.

Iruñean, 2008ko azaroaren 10ean

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria: José María Roig Aldasoro

| Departamentua/Programa/Proiektua/Kontusaila | Bateratua | Erreserba | Baimendua |
|---|---|---|---|
| 810001 81130 7609 458100 Jarduera ekonomikoetarako udal eremuentzako laguntzak | 1.054.000,00 | 1.054.000,00 | 1.054.000,00 |
| 810002 81140 7609 425200 (**) Toki entitateek inbertsioak egiteko dirulaguntzak | 596.000,00 | 516.186,59 | 516.186,59 |
| 810002 81140 7800 425200 Energia berriztagarrietan inbertsioak egiteko dirulaguntzak | 527.764,64 | 461.150,52 | 247.869,73 |
| 810003 81140 2276 425200 Energia aurrezteko eta eraginkortasuna handitzeko neurriek eragindako gastuak | 300.000,00 | 196.207,95 | 194.143,55 |
| 810003 81140 4701 425202 Auditoriak, diagnosiak eta ikastaroak | 210.499,00 | 197.375,01 | 197.375,01 |
| 820002 81300 6031 467900 Zerbitzu mugikorretarako eta LTDrako azpiegiturak | 1.888.000,00 | 1.882.809,25 | 1.852.809,25 |
| 820002 81300 6059 467900 Telekomunikazioetako azpiegituren plana. FEDER | 832.600,00 | 803.060,52 | 803.060,52 |
| 830001 81120 7709 422200 Inbertitzeak eragindako gastuak | 151.192.000,00 | 0,00 | 0,00 |
| 840001 81210 7709 467303 I+G+b proiektuetarako, patenteetarako eta bideragarritasun-azterlanetarako dirulaguntzak enpresentzat | 12.889.581,83 | 12.519.126,33 | 12.044.878,97 |
| 840001 81210 7709 467307 I+G+b-n inbertitzeak eragindako gastuak | 26.932.000,00 | 0,00 | 0,00 |
| 840001 81210 7819 467305 Zentro teknologikoak finkatzeko dirulaguntzak. | 5.000.000,00 | 500.000,00 | 500.000,00 |
| 840002 81220 4809 467902 Internet banda zabalekora konektatzea sustatzeko laguntzak | 600.000,00 | 600.000,00 | 600.000,00 |
| 850001 81400 4709 431300 Kanpoko sustapenerako ekintzak | 2.200.000,00 | 2.053.570,00 | 1.100.000,00 |
| 881001 84100 4609 241100 (**) Gizarte-intereseko obrak kontratatzeko dirulaguntzak | 3.655.400,00 | 3.655.400,00 | 3.655.400,00 |

# Galdera, lupus gaixotasunari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du lupus gaixotasunari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du lupus gaixotasunari buruz (PES-339/08). Hona hemen Osasun kontseilariaren erantzuna:

Lupus kasuen kopurua, alde batetik, Osasun Sistema Nazionaleko Ospitale Nagusietan Alta izandakoen erregistrotik atera da. Datuen oinarrizko gutxieneko multzoa (CMBD) datu administratiboz eta klinikoz osatuta dago, ospitaleratze-gertakariei buruzko informazioa laburtzen du, eta estatu-arau honi jarraitzen dio: adierazle-multzoa, Osasun Sistema Nazionaleko ospitaleen funtzionamendua zehazten duena, ospitaleratze-gertakariei dagokienez, Diagnostikoak Erlazionatutako Taldeek (GRD) azterketaren urterako indarrean dagoen All patients bertsioan sailkatu ondoren. Osasun Sistema Nazionalak kasuistikaren eta funtzionamenduaren azterketa konparatiboa egiteko dituen erreferentziazko datuak dira. Bestalde, CMBDtik berreskuratutako informazioa ospitaleetako barne-medikuntzako zerbitzuek eta Lehen Mailako Arretaren datu-baseek emandakoarekin alderatu da.

2.- Nafarroako Foru Komunitatean sortu gabe dago lupus kasuen erregistroa.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 12an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

# Galdera, "Laguntzak abeltzaintzako azpiegiturei. PDR. FEADER." izeneko kontusailari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du "Laguntzak abeltzaintzako azpiegiturei. PDR. FEADER." izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du aurrekontuko "Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak. PDR.FEADER" kontusailari buruz (PES-341/08). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren irailaren 1eko 1507/2008 Ebazpenaren bidez, 1.750.000,00 euroren laguntzak eman ziren 2008ko ekitaldirako, eta horietatik 1.650.000,00 euro mendi-inguruetan edo atzeraldian murgildutako udalerrietan kokatutako toki erakundeentzat izan ziren, eta 100.000,00 euro mendi-inguruetan ez dauden edo atzeraldian murgildutako udalerri ez diren gainerako toki erakundeentzat, eta kopuru hori guztia 2008ko aurrekontuko 720001-72120-7609-414304 "Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak" kontusailean zordundu zen.

Kontuan hartu behar da 2007. urteko bi urterako deialdian –2007-2008– egindako lagapeneko

2008ko urtealdiari dagokiola aurrekontuaren gainerakoa; lagapena Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren abuztuaren 14ko 1263/2007 Ebazpenaren bidez gauzatu zen.

Bi ebazpenetako zenbatekoak batuta egikaritzen da 2008. urterako aurrekontua.

Ez da zuzena esatea 3.300.000 euro eman direla, 3.500.000 euro baizik, eta horien barruan mendi-inguruetan edo atzeraldian murgildutako udalerrietan ez dauden toki erakundeentzako 200.000 euroak daude.

Abeltzaintzako toki azpiegiturak hobetzeko 2008ko ekitaldirako laguntzen deialdia arautzen duen maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduak, bigarren xedapen gehigarrian, honako hau dio hitzez hitz: "Aurrekontu-kredituak. 3.500.000 euroko gastua baimentzea; honela egotziko da: 1.750.000 euro, 2008. urteko aurrekontuko 720001-72120-7609-414304 "Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak" kontusailean zordunduta, eta 1.750.000 euro, 2009ko aurrekontuan dagokion kontusailean zordunduta; banaketa hau izanen da:

a) Mendi-inguruetan edo atzeraldian dauden udalerrietan dauden toki erakundeek egindako jarduerak: 3.300.000,00 euro; 1.650.000,00 euro 2008ko Gastu Aurrekontuan zordunduta, eta 1.650.000,00 euro 2009ko Gastu Aurrekontuan".

b) Gainerako toki erakundeek egindako jarduerak: 200.000 euro; 100.000 euro 2008ko Gastu Aurrekontuan zordunduta, eta 100.000 euro 2009ko Gastu Aurrekontuan".

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren irailaren 1eko 1507/2008 Ebazpenaren bidez, guztira 3.300.000,00 euroren laguntzak eman zitzaizkien mendi-inguruetan edo atzeraldian dauden udalerrietan kokatutako toki erakundeei, eta kopuru horretatik 1.650.000,00 euro indarreko aurrekontuko 720001-72120-7609-414304 "Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak" kontusailean zordunduko dira, eta 1.650.000,00 euro 2009ko ekitaldiko kontusail baliokidean.

Gainerako toki erakundeei, hau da, mendi-inguruetan ez daudenei, edo atzeraldian dauden udalerri ez direnei, guztira 200.000,00 euroren laguntzak eman zitzaizkien, eta horietatik 100.000,00 euro indarreko aurrekontuko 720001-72120-7609-414304 "Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak" kontusailean zordunduko dira, eta 100.000,00 euro 2009ko ekitaldiko kontusail baliokidean (PEP.: E-07/000011-04).

2008. eta 2009. urteetarako "Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak" PDR.FEADER deialdian ez da murrizketarik egin, horretarako baimendutako kredituen kopuru osoagatik –3.500.000 euro– dirulaguntzak eman direlako.

2008ko ekitaldiari dagokion aurrekontu-kontusailean, oraingoz, betetzea txikiagoa izan da, 182.193,08 euro gutxiago, zenbait toki erakundek obra gutxiago egin dituztelako, aurreko ekitaldiko deialdian emandako zenbatekoarekin alderatuta. Deialdiaren ezaugarriek berek, norgehiagoka erregimenekoa baita, eragotzi egiten dute aurreko deialdietako gerakinak erabiltzea, egungo deialdian baimendutakoei gehitutako beste gastu batzuei erantzuteko. Deialdiaren arauzko oinarriek, ordea, hau aurreikusten dute (10. artikuluko 2. atala): "...onuradunak aurreikusitako epea bete baino lehenago gauzatzen badu lagun daitekeen inbertsioa, eta aurrekontuan behar adina baliabide badago, kudeaketa organoak bigarren urterokoaren ordainketa aurreratu ahal izanen du, aurrekontu-doitze egokiak egin ondoren".

Landa Garapeneko zuzendari nagusiaren irailaren 1eko 1507/2008 Ebazpenaren bidez, guztira 3.300.000,00 euroren laguntzak eman zitzaizkion mendi-inguruetan edo atzeraldian murgildutako udalerrietan kokatutako toki erakundeei, eta kopuru horretatik 1.650.000,00 euro indarreko aurrekontuko 720001-72120-7609-414304 "Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak" kontusailean zordunduko dira, eta 1.650.000,00 euro 2009ko ekitaldiko kontusail baliokidean (PEP.: E-07/000011-04).

Gainerako toki erakundeei, hau da, mendi-inguruetan ez daudenei, edo atzeraldian murgildutako udalerri ez direnei, guztira 200.000,00 euroren laguntzak eman zitzaizkien, eta horietatik 100.000,00 euro indarreko aurrekontuko 720001-72120-7609-414304 "Abeltzaintzako azpiegituretarako laguntzak" kontusailean zordunduko dira, eta 100.000,00 euro 2009ko ekitaldiko kontusail baliokidean (PEP.: E-07/000011-04).

2008ko eta 2009ko urtekoetarako emandako kopuruak batuta, 3.500.000 euroko kopurua lortzen dugu, eta hori, hain zuzen ere, deialdirako baimendutako aurrekontu-kreditu osoa da; horrenbestez, laguntzak ez ziren eman, aurrekontu-krediturik ez zegoelako, maiatzaren 2ko 197/2008 Foru Aginduko 7.8 artikuluari jarraiki.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturria

## Galdera, 2006, 2007 eta 2008ko laguntza jarraituaren kostuari eta 2009rako aurreikuspenari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du 2006, 2007 eta 2008ko laguntza jarraituaren kostuari eta 2009rako aurreikuspenari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua parlamentu-taldeari atxikitako Ana Figueras Castellano andreak galdera egin du Etengabeko Arretak 2006an, 2007an eta 2008an izandako eta 2009rako aurreikusitako kostuari buruz (PES-343/08). Hona Osasun kontseilariaren erantzuna:

| | | |
|---|---|---|
| 2006. urtean: | 18.657.407,32 € | |
| 2007. urtean: | 20.196.357,30 € | (% 8,13) |
| 2008. urtean: | 21.277.946,00 € | (% 5,35) (Aurreikuspena) |
| 2009. urtean: | 22.980.181,00 € | (% 8,00) (Aurreikuspena) |

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 12an

Osasun kontseilaria: María Kutz Peironcely

---

## Galdera, asegururik gabe ibiltzen diren ibilgailuek eragindako istripuei eta Foruzaingoak horiek kontrolatzeko aurreikusitako neurriei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du asegururik gabe ibiltzen diren ibilgailuek eragindako istripuei eta Foruzaingoak horiek kontrolatzeko aurreikusitako neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 10eko 87. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### ERANTZUNA

Amanda Acedo Suberbiola andreak galdera egin du asegururik gabe zirkulatzen duten ibilgailuei eta Foruzaingoak horrelakoetan daukan jokabideari lotutako zenbait konturi buruz (PES-305 gisa sailkatuta). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Foruzaingoak, bere Trafiko Atalaren bidez, funtsezko bi jarduketa-mota egiten ditu, aginduzko zirkulazio-agindua itundu gabe zirkula dezaketen ibilgailuak detektatzeko.

Lehenik, Foruzaingoak trafikoari lotutako bere ohiko edozein jarduketatan egiten du ikuskaritza-mota hau, bai gidariak arau-hauste bat egin duelako, bai hura zirkulazio-istripuren batean nahasita dagoelako. Baina, gainera, kontrol orokor, arrunt eta sistematiko horrez gain, urtean zehar kanpaina espezifikoak egiten dira dokumentazioa eta segurtasun-sistemak kontrolatzeko, eta kanpaina horietan, besteak beste, ibilgailu bakoitzak asegurua duen eta hori indarrean dagoen ikusten da.

Horri dagokionez, Foruzaingoak urtean, gutxienez, 200.000 ibilgailu ikuskatzen ditu jartzen dituen kontroletan. Zehazki, 2007. urtean, Trafiko Dibisioak aseguruaren edukitzari lotutako 1.181 salaketa egin zituen. Salaketa haietatik, 964 salaketak asegurua ez izatearekin zuten zerikusia, eta gainerako 217ek ez-betetze formal batekin; zehaz-

ki, aseguru-poliza izatea frogatzen duen agiria ibilgailuan ez eramatearekin. Bestalde, 2008. urtean, orain arte, guztira, 850 salaketa egin dira zirkulazio-aseguruen arloan; horietako 698 aseguratu gabeko ibilgailuei dagozkie, eta gainerakoak frogagiririk ez eramateari dagozkio.

Esan behar da foruzainek, derrigorrezko agiririk ez daramatela ikusi duten guztietan, ibilgailuaren gidaria edo jabea identifikatu egin dutela, eta ibilgailua berehala ibilgetu; ibilgailua horrela egoten da ibilgetzeko arrazoiak desagertu arte, hau da, interesdunak indarreko aseguru-poliza duela erakutsi arte. Alde horretatik, 2007an ibilgailuen 611 ibilgetze gertatu ziren asegurua ez izateagatik, eta 2008an, orain arte, 443 ibilgailu ibilgetu dira arrazoi beragatik.

Derrigorrezko asegurua izatea egiaztatzeari dagokionez, bidezkoa da gogoraraztea azken urriko 13az geroztik indarrean dagoela irailaren 12ko 1507/2008 Errege Dekretuak ezarritako araudi berria; dekretu horrek, ibilgailu motordunen zirkulazioari dagokionez, Erantzukizun Zibileko Derrigorrezko Aseguruaren Erregelamendua onartu zuen. Aipatu arauzko testu horretako 14. artikuluaren arabera, ibilgailu motordun guztiek derrigorrezko asegurua indarrean dagoela frogatzen duen dokumentazioa eraman behar dute, baina ondoren esaten da agintearen agenteek derrigorrezko asegurua indarrean dagoela egiaztatuko dutela, eta, horretarako, Aseguratutako Ibilgailuen Informazio Artxibategia (FIVA) kontsultatuko dutela. Horri dagokionez, esan behar da Foruzaingoko Aginte eta Koordinazio Zentroan FIVAn sartzeko aukera dutela eta, horregatik, asegurua indarrean dagoen jakiteko kontsulta berehala egiten dela.

Galderan aipatu beste gaiari dagokionez, asegururik gabeko ibilgailuek aurten orain arte eragindako istripuen kopurua, Foruzaingoak egindako espedienteetan dauden datuen arabera, hau da:

– Atestatua egin den istripuak (heriotzaren bat, lesio larriak edo delitu diren kalteak gertatu diren istripuak): 2.

– Prebentzio-eginbideak ekarri dituzten istripuak (horien ondorioak kalte txikiak edo lesio arinak dira): 11.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 5ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

# Galdera, Erronkariko ur-amilei buruzko proiektuaren ingurumen eraginaren adierazpena egin ez izanari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Erronkariko ur-amilei buruzko proiektuaren ingurumen eraginaren adierazpena egin ez izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Erronkariko ur-amilen proiektuaren ingurumen eraginaren adierazpena egin ez izanari buruz (PES-325/08). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Ingurumenaren Kalitate Zerbitzuko zuzendariaren ekainaren 30eko 318/2008 Ebazpenaren bidez, ingurumen-ukipenetarako baimena eman zitzaion Erronkari ibarreko Batzar Nagusiak Ezka ibaiko ur-amiletarako sustatutako ubide-proiektuari.

Baimen hori kontuan hartzekoak aztertu ondoren eman zen, baimenaren azalpenezko zatian jasotzen den bezala –zehazki, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duen abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuko P ataleko 2C eranskinean–. Jarduketaren ezaugarriak ez datoz bat 4. ataleko 3A) eranskinean jasotako ibai-dragatzeek dauzkatenekin, eta esku hartzen den ibai-zatiaren egungo baldintzak direla eta, proiektua ez dago E) ataleko 3B eranskinean bildutakoen barruan.

Hortaz, hori guztia kontuan hartuta, ez zen ingurumen-inpaktuaren adierazpenik egin, eta ingurumen-ukipenetarako baimena eman zen.

Red Natura 2000rekiko ukipenari, ekosisteman gerta litekeen funtsezko aldaketari eta Uraren Esparru Zuzentaraua betetzea arriskuan jartzeari dagokienez, hauek adierazi behar dira:

1. Sustatzaileak, proiektuarekin batera, ingurumen-ukipenen azterlana aurkeztu zuen, eta hori, Ingurumenaren Kalitate Zerbitzuak eskatuta, dokumentazio gehiagorekin osatu zen.

2. Jarduketa eremuan ingurumen-balioak gordetzeari dagokionez, balio nabarmenak bereizi egin dira, eta zuzenketa-neurriak aplikatu dira helburu hori betetzeko.

3. Ibaiaren ibilguari eginen zaizkion ukipenei dagokienez, obrak baimengarritzat hartzen dira, jadanik artifizial bihurtutako hiri-tarte bat delako, inola ere baztertu gabe Ebroko Konfederazio Hidrografikoak ezar ditzakeen neurriak.

4. Baimena emateko baldintza da sustatzaileak proposatutako zuzenketa-neurriak betetzea, bai eta baimeneko xedapen-tartean agertzen diren beste neurri batzuk betetzea ere; izan ere, neurri horiek programatutako jarduketak minimizatzera jotzen dute, eta proiektuaren helburua ahalik eta ingurumen-eragin txikienarekin garatzeko ezinbestekoak direnak baino ez dira. Alde horretatik, ingurumen-ukipenetarako baimenak ezinbestean eskatzen du obrak hasi baino lehen dokumentazioa prestatzea, eta horren barruan jasotzea bai kartografia berria bai piraguetarako aurreikusitako erabilera lortzeko ibilguan eta ertzetan egin beharreko gutxieneko jarduketen zehaztapena.

Adierazitakoa kontuan hartuta, uste dugu proiektuak ingurumenean izan ditzakeen eraginen ebaluazioan erabilitako metodologia eta haren sakontasuna ingurumen-eraginaren ebaluazio-prozedurak bermatzen duenaren maila berekoa dela, inola ere alde batera utzi gabe jabari publiko hidraulikoan eskumena duen aginteak, Ebroko Konfederazio Hidrologikoak, bere ebaluazioa egin dezakeela, indarrean dagoen Uren Legean arautako prozedura administratiboaren bidez.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 12an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

# Galdera, Reyno Gourmet publizitate kanpainari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Reyno Gourmet publizitate kanpainari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 24ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera hauek egin ditu: Aurrekontuko zer kontusailen kargura eginen da kanpaina horretako gastua? Nafarroako Gobernuak zer hizkuntzatan sustatu nahi du Nafarroako Erresuma marka? Hona Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariaren erantzuna:

– Aurrekontuko zer kontusailen kargura eginen da kanpaina horretako gastua?

A100002/A1200/2262/432106 “Landa-gastronomia eta -turismoaren sustapena” kontusailaren kargura

– Nafarroako Gobernuak zer hizkuntzatan sustatuko du “Nafarroako Erresuma. Lur anitza” marka kanpaina horretan?

Nafarroako nekazaritzako elikagaiak eta turismo aktiboa sustatzeko kanpaina horretan, Nafarroa eta erkidegoko produktuak nazio-mailan gehiago nabarmenaraztea da helburua.

Kanpainaren barruan sortze-estrategia bat erabiliko da, Miguel Indurain txirrindularia erreferentziatzat izanen duena, bai eta komunikabideetarako plan bat ere: telebista, irratia, prentsa, gastronomian eta turismoan espezializatutako nazio osoko aldizkariak eta hesiak eta markesinak Espainiako hiri nagusietan.

“Nafarroako Erresuma, Lur Anitza” marka turistikoak beste programa eta kanpaina batzuk ditu zenbait hizkuntzatan beste merkatu batzuetarako.

Reyno Gourmet kanpaina ICANek kudeatzen du, Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Kalitate Institutuak, eta horrek erabakitzen du zer hizkuntza erabili, kasu honetan gaztelania, eta Nafarroako Gobernuko Turismo Departamentuak sinergiak areagotzeko aukera dagoela ikusi du, lotura berezia dagoelako esperientzia turistikoaren, nekazaritzako elikagaien eta Miguel Indurainen irudiaren bidez adierazitako turismo aktiboaren artean.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 14an

Vianako Printzea Erakundea - Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilaria: Juan Ramón Corpas Mauleón

# Galdera, A-15 autobiaren 128. eta 128,5. kilometro-puntuetan izandako istripuei buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du A-15 autobiaren 128. eta 128,5. kilometro-puntuetan izandako istripuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 18an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du. Hona hemen Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariaren erantzuna:

1.- DGTren datu-basean jasota dagoenaren arabera, 1997. urtetik 2008ko urriaren 15a arte aipatu tartean 23 istripu gertatu ziren.

2.- 23 istripu horietako bostetan, hildakoak izan dira.

3.- Hau da istripu horien tipologia:

% 9 matxurak

% 9 atzetik jotzea

% 9 aurreratzea

% 14 lehentasuna

% 55 bidetik irtetea

% 4 oinezkoak

Emandako datuak A-15 / Leitzarango Autobiako 128 + 000 eta 128 + 500 kilometro puntuen arteko bi galtzadetan gertatutako istripuei buruzkoak dira.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192.1. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko azaroaren 14an

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria: Laura Alba Cuadrado

---

# Galdera, irakasleen plantillek Nafarroako ikastetxe guztietan duten egoerari buruzkoa.

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du irakasleen plantillek Nafarroako ikastetxe guztietan duten egoerari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko urriaren 31ko 95. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko azaroaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M.ª Luisa Mangado Cortés andreak galdera egin du 2008ko urriaren 23an bete gabe dauden irakasle-plazei buruz (PES-342/08). Hona horretaz bidaltzen den informazioa:

I. eranskina- 2008ko urriaren 23an bete gabe dauden maisu-plazak. Egun, plaza horiek guztiak beteta daude.

2008ko azaroaren 17an, plazen titularren gaixoaldi-bajagatik, zortzi ordezkapen berri daude, eta lanaldi erdiko behar bat sortu da. Plaza horiek txosten honetako II. eranskinean agertzen dira.

III. eranskina- 2008ko urriaren 23an irakaskuntza ertainetan bete gabe dauden irakasle-plazak. Egun, plaza horiek guztiak beteta daude.

2008ko azaroaren 17an, plazen titularren gaixoaldi-bajagatik, bete gabeko bi ordezkapen berri daude. Plaza horiek txosten honetako IV. eranskinean agertzen dira.

Iruñean, 2008ko azaroaren 19an

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

# 2008 / 10 /23an BETE GABEKO MAISU-ORDEZKAPENAK

## GAIXOALDI-BAJA

| Bulegoan sartutako eguna | Herria | Ikastetxea | Espezialitatea | Hizkuntza | IBIL/IRAUN/MURRIZT | Oharpenak plazaz/kontratuaz | Hasiera-data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2008/10/06 | ARESO | HLHIP | PED. TERAPEUTIKOA | Euskara | IBILTARIA | Lanaldi erdia Leitzako BHIn, ibiltaritzan. EH-ko saioren bat dauka. | 2008/10/01 |
| 2008/10/13 | IRURTZUN | "ATAKONDOA" HLHIP | GAZTELANIA | Gaztelania | | D-n GAZT.ko 6 + Plast.ko 2 ematen ditu | 2008/10/10 |
| 2008/10/20 | MILAGRO | "VIRGEN DEL PATROCINIO" HLHIP | INGELESA | Gaztelania | | | 2008/10/14 |
| 2008/10/28 | IRUÑA | "AXULAR IKASTOLA" HLHIP | ENTZUMENA ETA HIZKUNTZA | Euskara | IBILTARIA | 11 saio en, ibiltaritzan | 2008/10/21 |
| 2008/10/29 | GARES | HLHIP | LEHEN HEZKUNTZA: | Gaztelania | | | 2008/10/29 |
| 2008/10/17 | SESMA | "VIRGEN DE NIEVAS" HLHIP | INGELESA | Gaztelania | | Kontratua 2008/10/27an sinatu zuten, eta 08/10/29an uko egin zion | 2008/10/17 |
| 2008/08/26 | TUTERA | "VALLE DEL EBRO" BHI | GIZ. ZIENTZIAK, G. eta Hª. | Gaztelania | | | 2007/08/17 |
| 2008/10/30 | ZIZUR NAGUSIA | "CAMINO DE SANTIAGO" HLHIP | EUSKARA | Euskara | | | 2008/10/29 |
| 2008/10/24 | ZIZUR NAGUSIA | "CATALINA DE FOIX" HLHIP | LEHEN HEZKUNTZA: | Gaztelania | | Kontratatua ez da aurkeztu ikastetxean.08/10/29. | 2008/10/20 |

| Bulegoan sartutako eguna | Herria | Ikastetxea | Espezialitatea | Hizkuntza | IBIL/IRAUN/MURRIZT | Oharpenak plazaz/kontratuaz | Hasiera-data |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
